

AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA, Zarauzko Udaleko idazkaria naizen honek

ZIURTATZEN DUT: 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrek honako hau erabaki zuela:

“GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2025 URTERAKO

- **Zarauzko gazteek eta irabazi-asmorik gabeko gazte-edo gizarte-elkarteek dirulaguntzak**

Espedientea: 2025W9990001

Gazteria Departamentuko dirulaguntzak jasota daude ZARAUZKO UDALEKO 2024KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAN (2024ko otsailaren 1eko GAO, 23 zk.), eta hauek dira haien oinarri arautzaileak: ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA (2024ko apirilaren 5eko GAO, 66 zk.) eta GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ESPEZIFIKOAK (2024ko apirilaren 5eko GAO).

Oinarri hauen helburua da Zarauzko gazteek eta irabazi-asmorik gabeko gazte-edo gizarte-elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Dirulaguntzak 2025. urtean zehar hainbat programa eta jarduera burutzeko izango dira, eta beren proiektzio eta interesetatik bat etorriko dira Gaztematikako helburuekin eta Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuaren programekin.

Orain 2025. urteko dirulaguntzen deialdia onartu behar da. Hori dela eta, Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenena.- Gazteria Departamentuko dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko 2025. urteko deialdia onartzea.

Bigarrena.- Ondorengo gastua onartzea:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2025	1.1001.481.01.337.20.2025 (7454)	24.610,00€

Hirugarrena.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku utziko du deialdiaren laburpena, argitara dezan. BDNSk deialdiari eman dion identifikazio-kodea agertu beharko da laburpenaren argitalpenean.

GAZTERIA DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA 2025.URTEA

AURKIBIDEA

1. HELBURUA
2. ESKAERAK
3. AKATSAK ZUZENTZEA
4. PROZEDURA
5. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK
6. ONURADUN IZATEKO DEBEKUA
7. INSTRUKZIOA ETA PROPOSAMENA
8. AURREKONTU PARTIDA ETA ZUZKIDURA
9. DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK
10. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEAKO EPEA
11. PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK
12. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA
13. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA AURRERAKINAK
14. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA
15. PUBLIZITATEA
16. ARAUDIA
17. ERREKURTSOAK
18. INFORMAZIOA

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da Zarauzko gazteek eta irabazi- asmorik gabeko gazte-edo gizarte-elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Dirulaguntzak 2025. urtean zehar hainbat programa eta jarduera burutzeko izango dira, eta beren proiektzio eta interesetatik bat etorriko dira Gaztematikako lan-ildoekin eta Gazteria Departamentuaren programekin.

Legez eraturako elkarteak:

- Programazioa- Elkarteen sustapena
- Elkartekideen prestakuntza
- Materiala erostea eta berritzea

Gazteak edo gazte-taldeak:

- Jarduera puntualak

Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira banakakoek edo gazte-eta gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak.

2.- ESKAERAK

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte gazteekin lan egiten duten Zarauzko irabazi asmorik gabeko gazte- edo gizarte- elkarteek, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak, beren jarduera nagusiki Zarauzko udalerrian garatzen dutenak, soilik gazte zarauztarrentzat eta jarduera guztiak euskaraz burutzen dituztenak.

Ildo horretan, udalerriarentzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkari ofizialik ez izan. Hala ere, Zarautzen ordezkari ofizialik ez duten elkarte edo erakundeek urte osoko

programazio bat eskaini beharko dute Zarauzko herrian, zaraustar gazteei soilik eskainitakoa, eta hilerok gutxienez bi jarduera izango dituen; gainera, eskatzaileen ordezkariak (Zuzendaritza Batzordea) 18 eta 30 urte bitartean dituzten zaraustarrak izan beharko dute.

Halaber, ekimen puntualak egiten badituzte, dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte nortasun juridikorik gabeko elkarteak, nahiz pertsona fisiko edo juridikoak izan nahiz publiko edo pribatuak izan. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askiatsia izango duena. Kasu horietan guztietan, nahikoa izango da eskatzaileen bi herenek edota eskatzaileak (bakarra denean) 14 eta 30 urte bitarteko adina izatea eta Zarautzen erroldatua egotea azken hiru urteetan.

Zarauzko Udalak zuzenean egiaztatuko ditu datuak sektore publikoko edozein erakundetan. Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu: interesdunak betetzen dituen Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak.

Interesduna egiaztatze horren alde ez badago, eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Eskariak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Eskaerak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1) Gazteria Departamentuaren urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren ereduak betetzeko egin beharko dira.
- 2) Programa edo jardueren ordezkari edo pertsona arduradunak dirulaguntza eskatzeko inprimaki ofizialaren gelaxka guztiak bete beharko ditu.

Pertsona juridikoak behartuta daude aurkezpenak modu elektronikoan aurkeztera. Eskaerarekin batera Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 14. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da.

Pertsona fisikoak hilabeteko epean egin ahal izango dute eskaera, Gazteria Departamentuko urteroko deialdian zehaztutakoarekin bat, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

- Udaleko web-orriko Erregistro Elektronikoan (www.zarautz.eus), tramitean atalean.
- HAZen (Kale nagusia 29), ordutegi honetan:
 - Astelehenetik ostiralera: 7:30-15:00
 - Ostegunean: 7:30-19:00

Eskabideak ondoren ageri diren eredu ofizialen arabera aurkeztuko dira:

- A. Zarauzko gazte- edo gizarte-elkarteak G-01 inprimakia bete beharko dute, eta dirulaguntza mota bakoitzerako eskaera-fitxa hauek bete beharko dituzte:
 - G-02 eskaera fitxa → Urteko programazioa – Elkartearen sustapena
 - G-03 eskaera fitxa → Elkartekideen prestakuntza
 - G-04 eskaera fitxa → Materialak erosi era eraberritzea
- B. Ekimen puntualetarako dirulaguntzak eskatu nahi dituztenek G-05 eskaera-fitxa bete beharko dute.

3.- AKATSAK ZUZENTZEA

Eskaera-orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, pertsona edo erakunde eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akats edo ez aurkezteak zuzendu ditzaten edo informazio gehiago eman dezaten. Emandako epean ez badira zuzentzen ikusitako akatsak, beren eskaerei uko egin dietela pentsatu edo prozedura artxibatu egingo da. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.artikuluaren aurreikusitakoaren arabera egingo da.

4.- PROZEDURA

Dirulaguntzak emateko prozedura Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

Espedientean instrukzio-organoaren txosten bat sartuko da. Bertan adieraziko du, bere esku duen informaziotik ondorioztatuta, pertsona onuradunek betetzen dituztela dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak.

5.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Legean aurreikusitako gastuez gain, hauek ere onartuko dira: diruz lagundutako proiektua gauzatzeko egin behar diren finantza-gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak, notaria eta erregistro gastuak, eta perituen gastuak, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak badira.

6.- ONURADUN IZATEKO DEBEKUA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13 artikuluan zerrendatutako edozein.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratiboak, laboralak edo penalak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena, jarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. Artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. Artikulua).

Erakundeak, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez dagoela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordezkari, erantzukizunpeko aitorpenarenak aurkez daitezke.

7.- INSTRUKZIOA ETA PROPOSAMENA

Instrukzioa eta proposamena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorreko 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzio-organoa (antolamendua eta instrukzioa): Gazteria Departamentuko arduraduna.
- Balorazio Batzordea (azterketa eta balioespena): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Organo Eskuduna (ebazpena): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.

8.- AURREKONTU PARTIDA ETA ZUZKIDURA

Dirulaguntza partida honetatik ordainduko da, eta gehienez kopuru hau izango du:

- **Aurrekontu partida:** 1.1001.481.01.337.20.2025 (7454)
- "Dirulaguntzak: Elkarleen sustapena": 24.610,00 €

9.- DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK

- 1) Dirulaguntzak esleitzeko ondorengo puntuak hartuko dira kontuan, eta eskaerarekin batera aurkeztuko diren programazio-fitxetan egiaztatu beharko dira.

Horrela bada, puntuazio zehatz bat emango zaio eskaera bakoitzari, eta lehentasun-hurrenkera bat jarriko da. 60 puntu gainditzen dituzten eskaerak soilik onartuko dira, eta horien artean banaketa proportzionala egingo da.

- Aisia hezitzailea (5-30 urte bitarteko haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendua): 20 puntu
 - Bizikidetzak (bereziki lantzea haurrak, nerabeak eta gazteak parekidetasunean prestatzeko jarduerak eta genero-identitate anitzak aintzat hartzea)
 - Solidaritatea
 - Gizalegea
 - Ohitura osasuntsuak sustatzea.
- Atal honetan zera eskatzen da: binkulazioa (integraltasunari begira) eta prestakuntza eta dokumentazio egokia, erabiltzaileen garapenean gai horiek landu behar direnean; eta lortutako emaitzak aurkeztea, justifikazioan. Bereziki kontuan hartuko da gizarte anitz baten aldeko jolasak eta/edo materiala erabiltzea eta sortzea.
- Informazio, orientazio eta laguntza jarduerak: 15 puntu
 - Baliabide publiko eta fidagarrien aldeko ezagutza zabaltzea
- Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak: 10 puntu

- Iritzia eman
 - Proposamenak egin
 - Erabakiak hartu
 - Erantzukizunak hartu
 - Kudeaketan trebatu (elkarrekin kudeatu)
 - Baliabideak kudeatu
 - Euskarazko komunikazioa eta materiala erabili eta sortzea: 10 puntu
Aparteko saiakera gisa baloratuko da batez ere nerabeentzako eta gazteentzako euskarazko produktuak sortzeko egindako lana.
 - Hiritartasun aktiboa eta herriko bizitza soziokulturalean partaidetza sustatzea (alderdi komunitarioa lantzea): 10 puntu
 - Elkarteko helburuen eta jardueren arteko koherentzia: 10 puntu
 - Jardueren kalitatea eta taldearen egonkortasuna: 10 puntu
Hemen honako hau nabarmendu nahi da: berrikuntza eta egokitzapena gai berrien inguruan. Adi egoteko modu hau taldeen artean zabaltzea.
 - Partaideak eta bazkideak erakartzeko egindako lana: 5 puntu
 - Dirulaguntza jasotzen duten elkarten ardura-postuetan eta erabakitze organoetan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40 izatea: 5 puntu
 - Dirulaguntza jasotzen duten elkarten osaeran emakumeen parte-hartzea gutxienez % 40 izatea: 5 puntu
- 2) Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak:

a. URTEKO PROGRAMAZIOA

Diruz lagunduko dira beren eguneroko jardueren eta jarduera tradizionalen bidez elkartearen helburuak lortu nahi dituzten programak eta jarduerak.

Dirulaguntza-ildo hau Elkarten Sustapenaren transferentzien partidari atxikiko zaio.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko programa edo ekintzaren gastuen % 70. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) erakunde onuradunak dirulaguntzarekin garatu beharreko jardueraren kostua.

b. ELKARTEKIDEEN PRESTAKUNTZA

Elkartekideak elkartearen kudeaketa, programa eta jarduerekin zerikusia duten ikastaro edo prestakuntza programetara joatea. Atal honetan bereziki sartuta daude aisialdiko begirale eta zuzendarien prestakuntza-ikastaroak eta antzekoak. Modu positiboan baloratuko dira haurren, nerabeen eta gazteen inguruko gaiak sakontzeko egindako formakuntzak eta dokumentazio eskaerak.

Dirulaguntza-ildo hau Elkarten Sustapenaren transferentzien partidari atxikiko zaio.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 50 gaindituko. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) erakunde onuradunak dirulaguntzarekin garatu beharreko jardueraren kostua.

c. MATERIALA EROSTEA ETA BERRITZEA

Eskatzaileak bere eguneroko programak eta jarduerak burutzeko behar dituen material ez suntsikorraren erosketak eta berritzeak izango dira.

Dirulaguntza-ildo hau Elkartearen Sustapeneko transferentzien partidari atxikiko zaio.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 50 gaituko. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz gaitu (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerara edo baliabide batzuekin batera) erakunde onuradunak dirulaguntzarekin garatu beharreko jardueraren kostua.

d. EKIMEN PUNTUALAK

Gazteek norbanako gisara edo taldean antolatzen dituzten gizarte eta kultur arloko ekimen puntualak, beren proiektu eta interesetatik Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuaren programa ezberdinen helburuekin bat etortzen badira.

Dirulaguntza-ildo hau Elkartearen Sustapenaren transferentzien partidari atxikiko zaio.

Dirulaguntza-ildo hau taldeka edo banaka eska daiteke, eta eskatzaileak ez du zertan Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroan inskribatuta egon. Talde eskatzailearen kideen bi herenak gutxienez edota banakako eskatzaileak 14-30 urte bitartekoak izango dira, eta Zarautzen erroldatuta egongo dira azken hiru urteetan. Kasu honetan, langile bitartekariak gazteak izango direla bermatu behar da, hartara gazteen proiektu kulturalak bultzatu ahalko baitira.

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programa edo ekintzaren gastuen % 50 gaituko. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak ezingo du inoiz gaitu (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerara edo baliabide batzuekin batera) erakunde onuradunak dirulaguntzarekin garatu beharreko jardueraren kostua.

- 3) Dagokion aurrekontu-partidako diru-izendapenaren gehienezko muga arteko dirulaguntzak emango dira.
- 4) Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak ere diruz lagundu ahal izango dira, ezinbestekoak badira diruz lagundutako jarduerara modu egokian prestatzeko edo burutzeko; horien onespena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

10.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Prozeduraren izapideak bete ondoren, eta ebazpen proposamena egin aurretik, 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren izapidea beteko da. Dena den, prozeduran interesdunek argudiatutako egintzak, alegazioak eta probak bakarrik agertzen badira eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, orduan, ez da entzunaldiaren izapidea egin beharrik izango.

Eskariak ebazteko gehienez hiru hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako berariazko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi egin direla ulertuko da.

Interesdunei erabakiaren berri emango zaie, urriaren 1ko 39/2015 Legeak 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Emandako dirulaguntzak argitaratuko ditu Udalak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 18. artikuluan jarritakoaren arabera.

11.- PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Hauek dira pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, oinarri berezietan jasotakoez gain:

- Zarauzko Udalarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea.
- Organo emaileari jakinaraziko dio ea diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituen, nazioko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik.
- Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuaren dirulaguntza jaso duela adierazi beharko da diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan.
- Jardueran aritzean, pertsonaren funtsezko eskubideak errespetatuko dira, bai eta indarrean diren legeak ere.
- Pertsona edo entitate onuradunak indarrean dagoen araudi aplikagarri guztia errespetatu beharko du; eta bereziki 1/2003 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudien arabera ondorengo baldintzak bete beharko ditu:
 - Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz lagundutako programan edo jardueran genero-ikuspegia txertatu beharko du.
 - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismoarik gabeko komunikazio inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.
 - Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
 - Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.

12.- DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraikiz egingo da; Gazteria Departamentuak jarritako epea: 2026ko urtarilaren 31 arte.

Onuradunak modalitate hauen bidez justifikatu ahal izango du jarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren emakidan aurreikusitako helburuak lortu direla: **Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua, eta modulu bidez egiaztatzea.**

Justifikazio-kontuak gutxienez informazio hau emango du:

1) Jardueren memoria:

Jardueren memoria bat, dirulaguntzaren emakidan jarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memorian, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira, eta datu agregatuak eta estatistikoak sartuko dira, pertsona fisikoak identifikatzeko edo identifikagarri egiteko datu pertsonalik gabe. Zehazki, anonimizatu egingo da parte-hartzaileen informazioa, eta bakar-bakarrik hauek sartuko dira: parte-hartzaileen kopuruen edo portzentajeen datu estatistiko agregatuak (adin-tartearen, sexuaren, eskolaren arabera sailkatuta).

2) Memoria ekonomikoa (honako hauek sartuko dira):

- a. Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data eta guzti. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.
- b. Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko froga-balioko edo administrazio eraginkortasuneko dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete izana ziurtatu ahal izateko. Diruz lagundutako jardueraren kostu orokor edota zeharkako kostuak aldeztu aurreko portzentaje edo kantitate zehatz baten bidez konpentsatuko dira, justifikatu behar izan gabe.
- c. Diruz lagundutako jardura finantzatu duten beste-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.
- d. Hala bada, aplikatu gabeko geldikinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Azterlan, programa, argitalpen, iragarki-txartel eta laguntza ekonomikoaren ondorioz garatutako jardueran sortu den dokumentazio grafikoaren eta idatziaren ale bat.

Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, erakundeko idazkariak sinatuta eta dagokion zigiluarekin.

Bai dirulaguntza justifikatzeko azalpen-memoria, bai lortutako emaitzen balorazioa, bai agiri eta dokumentu guztiak euskaraz aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzaren xede zen jardura amaitutakoan, diruz lagundutako jarduerari edo programei buruzko dokumentu hauek aurkeztu beharko zaizkio dagokion administrazio-unitateari, deialdian ezarritako epeetan:

- Deialdi honen babesean diruz lagundutako jardueren azalpen-memoria, lortutako emaitzen balorazio eta guzti. Memoriak genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapen zehatza jaso beharko du, bai eta diruz lagundutako proiektuaren parte-hartzaileen edo onuradunen kopurua ere, sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).

Dietak eta desplazamenduak jardueren antolaketarako beharrezkoak badira bakarrik onartuko dira.

13.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen ordainketa Zarauzko Udaleko Ordenantza Arautzailean ezarritakoari jarraikiz egingo da.

Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, justifikazioaren aurreko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzen % 60 ordainduko da, eta horretarako ez zaio inongo bermerik eskatuko onuradunari. Dena dela, azken zatia ordaintzeko (% 40), egindako gastuaren justifikazioa aurkeztu beharko da.

14.- DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bere borondatez itzuli ahal izango du dirulaguntza, Udalari erabaki horren berri emanez eta dirua bi kontu korrante hauetako batean sartuz:

- KUTXABANK: ES45 2095 5076 41 1060000246
- LABORAL KUTXA: ES86 3035 0029 62 0290900002

15.- PUBLIZITATEA

Udalaren web-orrian eta Udaleko iragarki-oholean argitaratuko da emandako dirulaguntzen zerrenda (onuradunak eta zenbatekoak adierazita).

Horrez gain, eta zaraustar guztiei tratu berbera ematea bermatzeko asmoz, dokumentazio, publizitate irudi edo material eta agiri guztiak modu egokian erabiliz egingo da komunikazioa, errespetuz, modu barneratzailean, onartzailean, inolako aurreiritzirik sortu gabe; hau da, herritar guztiak berdinean tratatuz. Ondorioz, saihestu egingo dira haurrak, nerabeak, gazteak eta, oro har, edonor edozein arrazoiengatik diskriminatzen duten irudiak edo estereotipoak.

Dirulaguntzaren onuradunak publizitatea egin beharko du, aurreko parrafoan adierazitako irizpideen arabera eta euskaraz, diruz lagundutako edozein programaren, jardueraren, inbertsioaren edo jardunen izaera publikoari buruz.

Horrela bada:

- Mezu idatziei dagokienez (kartel, esku-orri, prentsa-iragarki, sarrera txartel eta gonbidapen, liburuxka, gutun, deialdi, ohar eta gisakoak), euskaraz soilik idatzi eta zabalduko dira.
- Ahozko komunikazioetan (aurkezleak, hizlariak, irakasle/monitoreak, bozgorailuetako mezuak, irratietakoak, jarritako musika...) soilik euskara erabiliko da.
- Dirulaguntza justifikatzeko txostena bere osotasunean euskaraz idatziko da.
- Bestalde, haur eta nerabeen gurasoekiko harremana euskaraz egingo da; eta, goerak hala behartuta, ele bitan egingo da, euskara lehenetsiz.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatuetan. Euskarri elektroniko edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan, *"Jarduera honek Zarauzko Udalaren laguntza jaso du"* leloarekin eta Zarauzko Udaleko armariarekin.

16.- ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira:

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena (2003ko azaroaren 18ko BOE, 276 zk.).
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen Erregelamenduarena (2006ko uztailaren 25eko BOE, 176 zk.).
- Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea (2022ko otsailaren 21eko GAO, 34 zk.).
- Gazteria Departamentuko Dirulaguntzen Oinarri Espezifikoak (2024ko apirilaren 5eko GAO).

17.- ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzuenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak, bi kasuetan, deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

18.- INFORMAZIOA

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, jo www.zarautz.eus helbidera, deitu 943005122 edo 943005100/943003400 telefono-zenbakietara, idatzi gazteria@zarautz.eus posta elektronikora, edo galdetu Zinema pilotalekuan (Zigordia kalea 34)."

Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, alkate jaunak ontzat emana, Zarautzen 2025eko otsailaren 11n.

OE
Alkatea

Idazkaria

AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA,, Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz,

CERTIFICO: Que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 10 de febrero de 2025 adoptó el siguiente acuerdo:

"CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA EL 2025 DEL DEPARTAMENTO DE JUVENTUD

- **Subvenciones dirigidas a los/las jóvenes o grupos juveniles o sociales sin ánimo de lucro del municipio de Zarautz.**

Expediente: 2025W9990001

Las subvenciones del Departamento de Juventud están recogidas en el PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2024 DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ (BOG nº 23 de 1 de febrero de 2024), y sus bases reguladoras con la ORDENANZA GENERAL REGULADORA DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ (BOG nº 66, de 5 de abril de 2024) y las BASES ESPECÍFICAS DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE JUVENTUD (BOG de 5/4/2024).

El objeto de estas bases es la regulación del proceso de solicitud y concesión de las subvenciones en régimen de concurrencia competitiva dirigidas a los/las jóvenes o grupos juveniles o sociales sin ánimo de lucro del municipio de Zarautz. Las subvenciones serán para desarrollar diversos programas o actividades durante el año 2025 y por su proyección e interés serán coherentes con los objetivos de Gaztematika y los diferentes programas del departamento de Juventud del Ayuntamiento de Zarautz.

Ahora corresponde aprobar la convocatoria para el año 2025 de dichas subvenciones. Por ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, **ACUERDA:**

Primero.- Aprobar la convocatoria del año 2025 para la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, del Departamento de Juventud.

Segundo.- Aprobar el siguiente gasto:

Ejercicio	Aplicación presupuestaria	Importe
2025	1.1001.481.01.337.20.2025 (7454)	24.610,00€

Tercero.- Registrar la información requerida en la BASE DE DATOS NACIONAL DE SUBVENCIONES (BDNS) por los medios electrónicos que ésta proporcione, acompañada del texto de la convocatoria, de su extracto y de sus datos estructurados.

Tras registrar la información, la BDNS pondrá el extracto de la convocatoria a disposición del Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación. En la publicación del extracto deberá constar el código de identificación que haya asignado la BDNS a la convocatoria.

CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE JUVENTUD PARA EL 2025

ÍNDICE

- 1.- OBJETO
- 2.- SOLICITUDES
- 3.- CORRECCIÓN DE ERRORES
- 4.- PROCEDIMIENTO
- 5.- GASTOS SUBVENCIONABLES
- 6.- PROHIBICIÓN PARA BENEFICIARSE DE LA SUBVENCION
- 7.- INSTRUCCIÓN Y PROPUESTA
- 8.- PARTIDA DOTACIONAL Y PRESUPUESTARIA
- 9.- CRITERIOS DE SUBVENCIÓN
- 10.- PLAZO DE RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN
- 11.- OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS O ENTIDADES BENEFICIARIAS
- 12.- JUSTIFICACIÓN DEL DESTINO DE LA SUBVENCIÓN
- 13.- ABONO Y ANTICIPOS DE LAS SUBVENCIONES
- 14.- DEVOLUCIÓN DE LA SUBVENCIÓN
- 15.- PUBLICIDAD
- 16.- NORMATIVA
- 17.- RECURSOS
- 18.- INFORMACIÓN

1.- OBJETO

Es objeto de esta convocatoria regular el proceso de solicitud y la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para los/las jóvenes o grupos juveniles o sociales sin ánimo de lucro de Zarautz. Las subvenciones serán para desarrollar diversos programas o actividades durante el año 2024, y, por su proyección e interés serán coherentes con los objetivos de Gaztematika y los diferentes programas del Departamento de Juventud del Ayuntamiento de Zarautz.

Asociaciones legalmente constituidas:

- Programación – Promoción de las asociaciones
- Formación de socios/as
- Compra y renovación de material

Jóvenes y agrupaciones de jóvenes

- Actividades puntuales

